

OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINEKO ZERGARAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN GIDA 650 EREDUA - OINORDETZAK



Laguntza programa honako esteka honetan jaitsi dezakezu: <https://web.araba.eus/eu/ogasuna/oinordetzen-eta-dohaintzen-laguntza-programa>

AURKIBIDEA

<u>PROGRAMAREN INPRIMAKIEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK</u>	3
<u>NOLA AURKEZTU AUTOLIKIDAZIOAK LAGUNTZA PROGRAMAREN BIDEZ</u>	3
<u>ARAUDIA</u>	4
<u>JARRAITU BEHARREKO PAUSOEN LABURPENA</u>	4
<u>AURKEZLEAREN DATUAK</u>	5
<u>AURKEZPEN DATUAK</u>	6
<u>NOLA BETE EREDUA</u>	7
<u>KAUSATZAILAREN DATUAK</u>	8
<u>SUBJEKTU PASIBOEN DATUAK</u>	8
<u>ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN KOKATUTAKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA</u>	9
<u>ONDASUN HIGIGARRIEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA</u>	12
<u>AUTOLIKIDAZIOA</u>	13
<u>NOLA ITXI AURKEZPENA ETA INPRIMATU EREDUAK</u>	15
<u>KATASTRORAKO ZERRENDA</u>	16

PROGRAMAREN INPRIMAKIEKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA	
Jatorrizkoa eta fotokopia	
EZINBESTEKOAK	SOILIK HALA BADAGOKIO
<ul style="list-style-type: none"> ○ Oinordetza agiria ○ Heriotza ziurtagiria ○ Azken nahien ziurtagiria ○ Azken bost urteetako errolda ziurtagiria (salbu eta Gasteiz, Laudio edo Amurrio) ○ Testamentua, edo halakorik ez bada, jarausleen adierazpenaren akta ○ Hildakoaren eta oinordekoaren edo legatudunaren ahaidetasunaren frogagiria ○ Esku hartzaile guztien NANaren fotokopia 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Oinordetzari uko egiteko eskritura ○ Oinordekoaren edo legatudunaren desgaitasunaren ziurtagiria ○ Ohiko etxebizitzaren murrizketa aplikatu nahi izanez gero, oinordekoa edo legatuduna azken bi urteetan zenduarekin bizi izan dela frogatzen duen ziurtagiria ○ Nekazaritzako irabazien ziurtagiriak ○ Beste edozein hobari, murrizketa edo salbuespen izateko ezarritako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko frogagiriak
<p>Ondasun higiezinak</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Katastro erreferentzien ziurtagiria 	
<p>Ondasun higigarriak eta eskubideak</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Kontu korronteen edo aurrezki kontuen saldoen ziurtagiria ○ Ibilgailuaren agiriak (azterketa teknikoaren txartela eta zirkulazio baimena) ○ Panteoiaren edo nitxoaren titulua ○ Akzioen, partaidetzen eta inbertsio funtsen ziurtagiria ○ Burtsan kotizatzen ez dute akzioak: kausatzaileak zituen partaidetzen/akzioen kopurua egiaztatzen duen ziurtagiria, onartutako azken balantzearen kopia (Arabako enpresek izan ezik) eta kapital soziala zenbat partaidetzatan edo akziotan banatuta dagoen jasotzen duen ziurtagiria ○ Bonoen, zor publikoaren, obligazioen eta gainerako balioen ziurtagiria ○ Kengarriak diren kargen, zorren eta gastuen ziurtagiria <p style="text-align: center;">Ziurtagiriek eta balioek heriotzaren egunekoak izan behar dute beti</p>	

NOLA AURKEZTU AUTOLIKIDAZIOAK LAGUNTZA PROGRAMAREN BIDEZ

650 eredua osatzeko laguntza programa eskuragarri dago Arabako Foru Aldundiaren webgunean:
<https://web.araba.eus/eu/ogasuna/oinordetzen-eta-dohaintzen-laguntza-programa>

Egin beharreko autolikidazio guztiak bete ostean, zerga ordaindu behar duzu, edozein banku erakunde laguntzaileren bitartez, eta agiri guztiak aurkeztu behar dituzu Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Atalean (Ogasunaren eraikineko 1. solairua).

ARAUDIA

11/2005 Foru Araua, maiatzaren 16koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoa.

Diputatuen Kontseiluaren 74/2006 Foru Dekretua, azaroaren 29koa, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Arautegia onesten duena.

JARRAITU BEHARREKO PAUSOEN LABURPENA

1. Bete **aurkezlearen** datuak.
2. Bete **aurkezpen** datuak.
3. Bete aurkezpenaren **ereduak** (autolikidazioak).
4. **Inprimatu** laguntza programak sortutako PDF dokumentua, zeinetan honako hauek agertuko baitira:
 - Aurkezpen orria
 - Ondasun higigarrien edo/eta higiezinen zerrendak
 - Autolikidazioak
 - Eranskinak (hala badagokio)
 - QR kodeak

Inprimatu behar beste kopia, kontuan izanda banku erakundeak bat beharko duela eta Administrazioak beste bat.

Sortzen den PDF dokumentua gordetzea komeni da.

5. **Ordaindu** autolikidazioen emaitzaren araberako zerga zorra banku erakunde laguntzaileetako batean.
6. **Aurkeztu autolikidazioak** gainerako agiriekin batera Foru Ogasunaren bulegoetan: Félix M Samaniego kalea 14, 1. solairua, 01008 Gasteiz.

AURKEZLEAREN DATUAK

Autolikidazioak osatzen hasi baino lehen, ezinbestekoa da aurkezpen guztietan bera izango **den aurkezlearen datuak** betetzea.

Aurkezlea zergaduna bera izan daiteke edo eragiketa haren izenean egiten duen ordezkari edo profesional bat.

Aurkezpena / Aurkezlearen datuak:

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zer

Aurkezpena Tarifak eguneratzea

Aurkezpen berria


Kontsultatu aurkezpenak

Aurkezlearen datuak

Irten

Aurkezlearen datuak

IFZ	1. deitura edo sozietat. izena	2. deitura	Izena		
00001234S	PRESENTADOR	PRESENTADOR	PRESENTADOR		
Helbidea		Zk.	Letra	Esk.	Etxeb. Atea
SAMANIEGO		14			
Erakundea edo herria	Udalerria	Probintzia		Posta kodea	
VITORIA	VITORIA	Araba		01008	

 **Itxi** [Lege Oharra](#)

Datuak gordetzeko botoi hau klikatu behar duzu:



Aurkezlearen datuak gordeta, hurrengo aurkezpenetan datu horiek beraiek agertuko dira. Aldatu beharra baduzu, pantaila horretan sartu behar duzu, botoi hau sakatu, eta datuak idatzi:

AURKEZPEN DATUAK

Aurkezpen Datuak

Aurkezlea

IFZ 00001234S 1. deitura edo sozietatearen izena PRESENTADOR 2. deitura PRESENTADOR Izena PRESENTADOR

Helbidea SAMANIEGO Zk. 14 Letra Esk. Etxeb. Atea

Erakundea edo herria VITORIA Udalerria VITORIA Probintzia Araba Posta kodea 01008

Agiri publikoa Agiri pribatua Agiri judiziala

Oinordetza (650 eredua) Dohaintza (651 Eredua) Bizi aseguruaren poliza (652 Eredua) Nitxoak / Panteoiak (653 Eredua) Ibilgailuak (654 eredua) Gozamena iraugitzea (655 eredua) Zuzenketa

Aginian/protokoloan jasotzen diren heriotza kp. Dohaintza kp.

Protokolo zk. Bis

Notarioaren IFZ

Agiriaren data

Egilespen tokia Probintzia Araba

Honen zergapekoak diren beste eragiketa batzuk:
Egintza Juridiko Dokumentuak
Ondare Eskualdaketak

Oharrak

Itxi

OHARRA: Aurkezpen bakarra egin daiteke agiriko (eskritura edo pribatua), agirian dagoen eragiketa kopurua gorabehera.

Markatu "Oinordetza" 650 laukia

Agirian bestelako eragiketak ere badira, horiei dagozkien laukiak ere markatu behar dira (dohaintza, gozamena iraugitzea...).

Agiri mota

Dagokion laukia markatu behar duzu: "Agiri publikoa" edo "Agiri pribatua".

Agiriaren datuak


- Protokolo zk. / Notarioaren IFZ: soilik oinordetza eskritura publikoaren bidez egin bada.
- Agiriaren data: oinordetza jasotzen duen agiriarena idatzi behar da.
- Egilespen tokia: agiria zein herritan formalizatu zen idatzi behar da.

Agirian jasotzen den heriotza kopurua

Aurkeztutako agiriko oinordetza eragin duten hildakoen kopurua idatzi behar da.

NOLA BETE EREDUA

Behin aurkezpenaren datuak gordeta, pantaila honetara iritsiko zara:




Aurkezpenean kausatzaile baten baino gehiagoren oinordetza badago, oinordetza beste eredu gehitu beharko dira "Gehitu 650 Oinordetzak" botoiaren bidez.

Gainera, agirian beste eragiketa batzuk badaude, esaterako, dohaintzak edo gozamen irautitzeak, dagozkien ereduak erantsi behar dira.

Eskuineko botoien bidez, ereduak ezabatu ditzakezu.

Ereduak betetzeko bi aldiz klikatu behar duzu eredu bakoitzaren lerroan edo eskuinean dagoen "Ireki" botoian, eta horrela, pantaila honetara iritsiko zara: "Kausatzailearen datuak"

KAUSATZAILEAREN DATUAK



Pantaila honetan kausatzailearen datuak bete behar dira; behin beteta, "Onartu" botoia sakatuta gordetzen dira.

Arabako egoiliarra

Arabako egoiliartzat jotzen da sortzapenaren (heriotza) egunaren aurreko urtean kausatzailea bizi izan bada:

- urte ½ baino gehiago EAEn
- egun gehiago Araban Bizkaian baino
- egun gehiago Araban Gipuzkoan baino

(Hiru baldintzak bete behar dira)

Baldintza horiek betetzen ez badira, "Ez" laukia markatu behar da. Kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak EZ DAUKA zerga hori ordainarazteko ESKUMENIK.

5 urte edo gehiago EAEn

Markatu BAI laukia sortzapenaren aurreko bost urteetan kausatzailea egun kopuru handiagoa bizi izan bada Euskal Autonomia Erkidegoan (laukia markaturik agertzen da; beraz, baldintza hau betetzen ez bada, EZ laukia markatu behar da).

EZ laukia markatuz gero, jatorrizko autonomia erkidegoaren araudia aplikatuko da autolikidazioa kalkulatzeko.

SUBJEKTU PASIBOAK

The screenshot shows a web interface for managing subject taxes. At the top, there are tabs for 'Kausatzailearen datuak', 'Subjektu pasiboak', 'Ondasun higiezinak', 'Ondasun higigariak eta eskubideak', and 'Autolikidazioak'. The main area is a table with columns: IFZ, 1. deitura/Sozietatearen izena, 2. Deitura, Izena, Helbidea, Zk., Letra, Eskailera, Etxeb., Atea, and Tek. To the right of the table are buttons: Gehitu, Aldatu, Ezabatu, Onartu, Utzi, and Kopiatu. Below the table is a form with fields for IFZ, 1. deitura edo sozietatearen izena, 2. deitura, Izena, Ahaidetasuna, Taldea, Helbidea, Zk., Letra, Esk., Etxeb., Atea, Telefonoa, Aurretik zegoen ondarea, Ezintasun maila, Erakundea edo herria, Udalerria, Probintzia, Posta kodea, and Jaioteguna.

Zergaren subjektu pasiboak (ordaintzera behartuak) kausadunak (oinordekoak, legatudunak...) dira.

Pantaila honetan betetzen ari den erudian autolikidatzen den oinordetzaren subjektu pasibo guztien datuak idatzi behar dira.

Behin datuak beteta, "Onartu" botoia sakatuz gordetzen dira.

"Gehitu" botoiaren bidez, ereduko gainerako subjektu pasiboen datuak bete daitezke.


Ezintasun maila

Subjektu pasiboak/kausaduna legez desgaitua bada eta % 33ko desgaitasuna edo handiagoa badu, aitortutako desgaitasun portzentajea adierazi behar da.

Edozein mailatako mendekotasun egoera aitortuta badu, baina ez badu desgaitasun portzentajerik egiaztatuta, % 65 idatzi behar da.

Ahaidetasuna

Zabalgarrian aukeratu zein ahaidetasun duen kausadunak kausatzailearekin.



Aurreko ondarea

Datu hau subjektu pasiboak (oinordekoak/legatudunak) aitortu behar du eta kausatzailea Arabako egoiliarra izanik heriotza egunaren aurreko bost urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan bizi izan ez bada bete behar da. Kasu horretan, "Kausatzailearen datuak" atalean adierazitako autonomia erkidegoko indarreko araudia aplikatuko da.

ONDASUN HIGIEZINEN ZERRENDA

Pantaila honetan, oinordetzako higiezin guztiak sartu behar dira "Gehitu" botoiaren bidez, izan higiezin horiek Arabakoak nahiz beste probintzia batekoak.

Kausatzailearen datuak | Subjektu pasiboak | Ondasun higiezinak | Ondasun higigamaki eta eskubideak | Autolikidazioak

Arabako lurraldean dauden higiezinak

Aitortutako balio pribatiboa	Mota	Partaidetza %	Lurralde Historikoa	Udalerria	Poligonoa	Ebe salla	Lurza
------------------------------	------	---------------	---------------------	-----------	-----------	-----------	-------

Arabako lurraldetik kanpo dauden higiezinak

Aitortutako balio pribatiboa	Partaidetza %	Probintzia	Katastroko erreferentzia	Aito
------------------------------	---------------	------------	--------------------------	------

Ondasunaren deskripzioa

Lurralde Historikoa: Araba

Batura: 0,00 0,00

Mota Udalerria Poligonoa Lurzatia Azpilurzatia Eraikina Z.U. K.D.

Partaidetza % Aitortutako balio pribatiboa Aitortutako irabazpidezko balioa

Ondasunaren deskripzioa

Ondasun higiezinaren helbidea edo identifikazioa idatzi behar da. Mota

Aukeratu higiezin mota zabalgarrian (landakoa, lokala, etxebizitzak eta beste)

Katastro erreferentzia

Higiezinaren katastro erreferentzia idatzi behar da.

Arabako kokatutako higiezinaren kasuan. Katastro erreferentziak 20 digitu ditu.

Hiriko katastro erreferentziaren adibidea: 010112620000010001JS

Datuak honela bete behar dira:

Udalerrria: 01 / Poligonoa: 01/ Lurzatia: 1262 /Azpilurzatia: hutsik / Eraikina: 0001 / ZU: 0001 / DC: JS

Udalerria	Poligonoa	Lurzatia	Azpilurzatia	Eraikina	Z.U.	D.C.
01	01	1262		0001	0001	JS

Landako katastro erreferentziaren adibidea: 010101510A00000000DN

Datuak honela bete behar dira:

Udalerrria: 01 / Poligonoa 01 / Lurzatia 0151 /Azpilurzatia: 0A / DC: DN

Udalerria	Poligonoa	Lurzatia	Azpilurzatia	Eraikina	Z.U.	D.C.
01	01	0151	A			DN

OHARRA: "Azpilurzatia" eremua eremu alfabetikoa da eta hizkiak besterik ezin dira idatzi. Azpilurzatia 00 bada (zero, zero), utzi hutsik. Azpilurzatia 0A bada (zero, A), idatzi soilik A.

Partaidetzaren %

Oinordetzako/jarauspeneko higiezinaren portzentajea idatzi behar da.

Aitortutako irabazpidezko balioa



Kausatzailearen partaidetza portzentajea higiezinaren guztizko balioari aplikatzearen emaitza idatzi behar da. Ondasuna irabazpidezkoa denean erabili behar da lauki hau.

Aitortutako balio pribatiboa

Kausatzailearen partaidetza portzentajea higiezinaren guztizko balioari aplikatzearen emaitza idatzi behar da. Ondasuna pribatiboa denean erabili behar da lauki hau.

ONDASUN HIGIARRIEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

Kausatzailearen datuak	Subjektu pasiboak	Ondasun higiezinak	Ondasun higiamiak eta eskubideak	Autolikidazioak	Zure partaidetza pribatiboaren balioa heriotza egunean, guztira	Irabazpidezko zure partaidetzaren balioa heriotza egunean, guztira														
1.- Kontu korrontean, aurrezki kontuan, ageriko kontuan					<input type="text"/>	<input type="text"/>														
2.- Zor publikoa, obligazioak, bonuak eta bestelako baloreak.....					<input type="text"/>	<input type="text"/>														
3.- Akzioak, partaidetzak eta inbertsio funtsak.....					<input type="text"/>	<input type="text"/>														
4.- Artelanak eta antzinako gauzak eta bestelako ondasun eta eskubideak..... (EZ SARTU EZ BGAEak EZ PENSIO PLANAK).					<input type="text"/>	<input type="text"/>														
5.- Panteoiak eta nitxoak.....					<input type="checkbox"/> Santa Isabel <input type="checkbox"/> El Salvador <input type="checkbox"/> Beste batzuk	<input type="text"/>														
6.- Ibilgailuak, itsasontziak eta aireontziak																				
<table border="1"><thead><tr><th>Matrikula</th><th>Lehen matrikula data</th><th>Zilindrada</th><th>Potentzia</th><th>Marka-Modeloa-Mota</th><th>Aitortutako balio pribatiboa</th><th>Aitortutako irabazpidezko balioa</th></tr></thead><tbody><tr><td colspan="7"> </td></tr></tbody></table>					Matrikula	Lehen matrikula data	Zilindrada	Potentzia	Marka-Modeloa-Mota	Aitortutako balio pribatiboa	Aitortutako irabazpidezko balioa									
Matrikula	Lehen matrikula data	Zilindrada	Potentzia	Marka-Modeloa-Mota	Aitortutako balio pribatiboa	Aitortutako irabazpidezko balioa														
Ibilgailuak Aitortutako/Egiaztatutako guztirako balioa					<input type="text"/>	<input type="text"/>														
Batura					<input type="text"/>	<input type="text"/>														

Aldatu
Onartu
Utzi

Oinordetzan ondasun higarriak edo haien gaineko eskubideak badaude bete behar da zerrenda hau.

OHARRA: Ibilgailuen, ontzien eta aireontzien datuak sartzeko, lehenengo beste mota bateko ondasunen balioa idatzi behar da; hori egindakoan, era horretako ondasunen koadroa gaituko da betetzeko. Oinordetzako ondasun bakarrak ibilgailuak, ontziak edo aireontziak badira, 654 eredu erabili behar da.

Aitortutako irabazpidezko balioa

Oinordetzako ondasunaren balioa idatzi behar da. Ondasuna irabazpidezkoa denean erabili behar da lauki hau.

Aitortutako balio pribatiboa

Kausatzailearen/izendatzailearen ondasun pribatiboen guztizko balioa idatzi behar da. Ondasuna pribatiboa denean erabili behar da lauki hau.

AUTOLIKIDAZIOA

Pantaila honetan ereduiko subjektu pasibo guztien autolikidazioak kalkulatzeko beharrezko datu guztiak bete behar dira.

Lehenengo subjektu pasiboaren datuak gorde eta gero, gainerakoen autolikidazioak bete behar dira eta, horretarako, "Subjektu pasiboa" zabalgarriaren bidez hautatu behar dira.

Oinordetza mota (oinordetza titulua)

Dagokion laukia markatu behar da: Jarauspena / Legatua / Oinordetza ituna.

Autolikidazio partziala

Subjektu pasiboak autolikidazio partziala aurkeztu ahal izango du, soilik kausatzailearen kredituak kobratzeko; hark sortutako eta jaso gabeko hartzeak jasotzeko; gordailututa dauden ondasunak, balioak, efektuak edo dirua ateratzeko edo autolikidazio partziala egitea justifikatzeko nahikoa arrazoi dauden antzeko egoeretan.

Autolikidazio partzialari ezin zaio inolako murrizketarik aplikatu, hala xedatzen baitu zergari buruzko foru arauaren 42.3 artikulua. Horrenbestez, ahaidetasuna edo ezgaitasuna dela-eta autokalkulatutako murrizketa kendu behar da.

Autolikidazio gehigarria

Lauki hau markatu behar da aurrez beste autolikidazio bat aurkeztu bada oinordetza beragatik.

Metaketa

Autolikidazio gehigarria gakoa markatu bada, lauki honetan aurrez autolikidatutako edo likidatutako jarauspen masa idatzi beharko da.

Karga kengarriak

Karga kengarriak idatzi behar dira (horien frogagiriak aurkeztu behar dira).

Zor kengarriak

Zor kengarriak idatzi behar dira (horien frogagiriak aurkeztu behar dira).

Gastu kengarriak

Gastu kengarriak idatzi behar dira (horien frogagiriak aurkeztu behar dira).

Zerga oinarria (banakako jarauspen zatia)

Zergaren oinarria kausadun bakoitzaren banakako eskuratzearen balio garbia da.

Zergaren oinarria zehazteko, beraz, kausadun (oinordeko edo legatudun) bakoitzaren banakako partaidetza zein den zehaztu behar da. Horretarako, kausatzailearen testamentuko edo oinordetza ituneko jarraibideei jarraitu behar zaie. Testamenturik ez badago, dagokion lege zibila aplikatu behar da (hildakoa Euskadiko auzotasun zibilekoa bazen eta heriotza 2015eko urriaren 3ren ostean gertatu bazen, Euskal Zuzenbide Zibilaren 5/2015 Legea aplikatu behar da).

Interesdunek egiten dituzten partaidetzak eta esleipenak gorabehera, oinordetza legeekin bat etorri (testamentua, oinordetza ituna edo lege zibil aplikagarria) eta proportzionaltasun zorrotzez egin izan balitz bezala hartuko da zergaren ondorioetarako.

Aurreko dohaintzen metaketa

Kausatzaileak oinordekoari/legatudunari oinordetza honen egunaren (oro har, kausatzailearen heriotza eguna) aurreko hiru urteetan emandako dohaintzen zenbatekoa idatzi behar da.

Emailleak (orain kausatzailea) hartzaileari (orain oinordekoa/legatuduna) uzten dion oinordekotzaren zerga oinarriari erantsi ahal izango zaizkio emaile berak hartzaile berari eman dizkion dohaintzak eta gainerako *inter vivos* irabazizko eskualdaketak, baldin eta oinordetzaren eta dohaintzen arteko tartea ez bada hiru urte baino gehiagokoa, eta zerga oinarria zehazteko orduan, eskuratze bakartzat joko dira.

Ahaidetasunagatiko murrizketa

Programak aplikatzekoa den ahaidetasunagatiko murrizketa kalkulatu du subjektu pasiboen pantailan adierazitako ahaidetasunaren arabera (zergaren arauaren 22. artikulua).

Ahaidetasunagatiko eta desgaitasunagatiko murrizketak oinordetzen bidezko eskuratzeei aplikatzen zaizkie, bai eta heriotza gertatu delako bitzita aseguru bidez jasotako zenbatekoei ere. Murrizketa bakarra da bi kontzeptuetarako eta bataren eta bestearen artean banatzen da, egokitzat jotzen den zenbatekoan.

Programak kalkulatuak murrizketa aldatu egin behar da honako kasu hauetan:

- Autolikidazio partziala: ez da murrizketarik aplikatzen; beraz, kendu egin behar da.

- Bizitza aseguruak direla-eta jasotako zenbatekoen autolikidazioan edo kausatzaile beraren subjektu pasibo beraren aldeko bestelako autolikidazioetan partzialki edo osorik aplikatutako murrizketa: araudiak dagokion ahaidetasun talderako ezarritako murrizketa osora iristeko falta den zatia idatzi beharko da.

Desgaitasunagatiko murrizketa

Programak aplikatzekoa den desgaitasunagatiko murrizketa kalkulatzeko du subjektu pasiboen pantailan adierazitako desgaitasunaren arabera (zergaren arauaren 22. artikulua).

Aurreko atalean adierazitako egoera berberetan aldatu behar da murrizketa hau.

Etxebizitzagatiko murrizketak

Zergari buruzko arauaren 22.8 artikulua arabera aplikatzekoa den murrizketa idatzi behar da. Hori aplikatu beharra dagoela egiaztatzeke agiriak aurkeztu behar dira.

Beste murrizketa / salbuespen batzuk

Zergaren araudiaren arabera aplikatzekoa den murrizketa idatzi behar da. Hori aplikatu beharra dagoela egiaztatzeke agiriak aurkeztu behar dira.

Murrizketa hau honako hauen *mortis causa* eskuratzei dagokie: banakako enpresa, kausatzailearen negozio profesionala, erakundeetako partaidetzak edo horien gaineko gozamen eskubideak, bai eta Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan eta Nekazaritzarekin lotutako Zerga Neurriei buruzko Foru Arauan jasotako beste edozein murrizketa/salbuespen ere, arau horietan ezarritako baldintzetan.

Kenkaria nazioarteko zergapetze bikoitzagatik

Zergaren arauaren 25. artikuluan xedatutakoaren arabera dagokion kenkaria idatzi behar da.

Epez kanpo aurkezteagatiko erreargua

Errearguak Oinordetzen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 38. artikuluan xedatutakoak izango dira, salbu eta zerga administrazioak errekerimendua bidali badu; kasu horretan, Zergen Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

- % 5eko erreargua, autolikidazioa administrazioak aurrez emandako ezohiko luzapen epean aurkezten bada. % 10eko erreargua, baldin eta autolikidazioa borondatez aurkezteko epea amaitu eta hurrengo hamabi hilabeteak igarota aurkezten bada.

Berandutze interesak

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko maiatzaren 16ko 11/2005 Foru Arauaren 38. artikuluan ezarritakoak.


Preskribatua / Ez zergapekoa

Ez dago kargapean: Jarri "x" bat lauki honetan zergaren foru arauak 7.2. artikuluan jasotako kasua bada. (Zerga hau ez zaie aplikatzen pertsona juridikoek eskuratutako ondare gehikuntzei; horiei sozietateen gaineko zerga aplikatzen zaie).

Preskribatua: Jarri "x" bat lauki honetan Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Foru Arauak 27. artikuluan jasotako kasua bada.

Behin eredia beteta, "Itzuli aurkezpena" botoiaren bidez, lehenengo pantailara itzultzen da eta aurkezpenak dituen gainerako ereduak bete daitezke edo aurkezpena itxi eta inprimatu.


NOLA ITXI AURKEZPENA ETA INPRIMATU EREDUAK



Behin aurkezpenak izan beharreko eredu guztiak beteta, "Itxi aurkezpena" botoia sakatuta ixten da.

Oinordetzan Arabako Lurralde Historikoan kokatutako ondasun higiezinik badago, aurretik **katastrorako zerrenda** bete behar da.


Behin aurkezpena itxita, "Inprimatu behin betikoa" botoia aktibatzen da eta, haren bidez, PDF dokumentu bat sortzen da, zeinaren hiru kopia inprimatu behar baitira (Administrazioarentzat, zergadunarentzat eta banku erakundearentzat).



KATASTRORAKO ZERRENDA

Oinordetzan Arabako Lurralde Historikoan kokatutako ondasun higiezinak badago bete behar da eranskin hau.

Higiezinaren identifikazioa



"Kopiatu" botoian klikatuta, aurrez 650 ereduari sartu diren higiezinak agertzen dira.


Behin higiezina hautatuta, haren datuak dagozkien laukietan kargatuko dira eta "Onartu" botoiaren bidez baliozkotu behar dira.



Ondoren, eskuratzzaileen eta eskualdatzaileen datuak bete behar dira, " Eskualdatzaileak/Eskuratzzaileak" botoiaren bidez.




Eskuratzailerak



"Kopiatu" botoian klikatuta, aurrez aurkezpenean sartu diren kausatzaileen eta kausadunen identifikazio datuak agertuko dira.

Eskuratzailerak gisa hautatu higiezin eskuratzen duen oinordekoa/legatuduna/izendatua.



Behin eskuratzailerak aukeratuta, hau egin behar da:


- Markatu dagokion laukia: Jabetza osoa / Biziarteko gozamina / Aldi baterako gozamina / Jabetza soila.
- Partaidetza koefizientea: jabetza osoa edo jabetza soila bada, jasotako higiezinaren ehunekoak idatzi behar da.
- Adina / Urte kopurua: aldi baterako gozamina bada.

Eskualdatzaileak



"Kopiatu" botoian klikatuta, aurrez aurkezpenean sartu diren kausatzaileen eta kausadunen identifikazio datuak agertuko dira.


Eskualdatzaile gisa kausatzaileak hautatu behar da.



Behin eskualdatzaileak aukeratuta, partaidetza koefizientea idatzi behar da, hau da, eskualdatu den higiezinaren ehunekoak.

Katastrorako zerrendan agiri publiko edo pribatuaren bidez eskualdatutako eta Araban kokatutako higiezin guztiak agertu behar dira. Lerro bat dago higiezin bakoitzerako, zeinetan higiezin horren eskuratzailerak eta eskualdatzaile guztiak agertzen baitira.

Adibide hau bi oinordetza (bi hildako) dituen agiri baten aurkezpena da; bi kausatzaileak bi higiezin jabeak ziren erdibana (% 50) eta bi oinordekok jasoko dituzte erdibana (% 50).

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.alava.net		<h2 style="text-align: center;">Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones</h2> <h3 style="text-align: center;">Para catastro</h3> <h3 style="text-align: center;">Bienes Inmuebles del Territorio Histórico de Álava</h3>	
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila		Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos	
N.º PROTOCOLO: 000000 NOTARIO: _____		Inmuebles Urbanos	
Usos	<input type="checkbox"/> 1 Fisa <input type="checkbox"/> L Local comercial, barjas <input type="checkbox"/> 2 Gureja <input type="checkbox"/> 3 Trasteros, Bodegas, Cavaletas <input type="checkbox"/> 4 Vivienda Unifamiliar		Identificación del bien
	<input type="checkbox"/> 5 Sábiles urbanos <input type="checkbox"/> 6 Edificios Carácter Especial <input type="checkbox"/> 7 Pabellones y Naves Industriales <input type="checkbox"/> 11 Oficinas en piso		
Referencia Catastral			
Municipio: 1 Polígono: 01 Manzana: 0 Parcela: 1262 Subparcela: _____ Edificio: 1 Unidad Fiscal: 1 Uso: 1			
Sujetos Pasivos - Adquirientes	<input checked="" type="checkbox"/> 00023451Z <small>Asalduak y Sucesión a Tercero Social</small> HEREDERO 1		<input checked="" type="checkbox"/> Propia Propiedad Coeficiente: 50
	Domicilio, calle o plaza: SAMANIEGO		Vitales: _____ Temporal: _____ Modo propiedad 100% - % Usucapio: _____ % Edad usucapio a fecha constitución: _____ Número de años: _____
	N.º: 14 Letras: _____ Escal.: _____ Piso: _____ Planta: _____ Entidad o Parcela: _____		Usucapio: _____ Modo Propiedad: _____
	Municipio: VITORIA Provincia: Álava		
Sujetos Pasivos - Adquirientes	<input checked="" type="checkbox"/> 00023452B <small>Asalduak y Sucesión a Tercero Social</small> HEREDERO 2		<input checked="" type="checkbox"/> Propia Propiedad Coeficiente: 50
	Domicilio, calle o plaza: SAMANIEGO		Vitales: _____ Temporal: _____ Modo propiedad 100% - % Usucapio: _____ % Edad usucapio a fecha constitución: _____ Número de años: _____
	N.º: 14 Letras: _____ Escal.: _____ Piso: _____ Planta: _____ Entidad o Parcela: _____		Usucapio: _____ Modo Propiedad: _____
	Municipio: VITORIA Provincia: Álava		
Transmisiones - Causantes	<input checked="" type="checkbox"/> 00012341J <small>Asalduak y Sucesión a Tercero Social</small> CAUSANTE 1		Evol. Participación: 50
	Domicilio, calle o plaza: SAMANIEGO Entidad o Parcela: _____ Municipio: VITORIA Provincia: Álava		
Transmisiones - Causantes	<input checked="" type="checkbox"/> 00012342Z <small>Asalduak y Sucesión a Tercero Social</small> CAUSANTE 2		Evol. Participación: 50
	Domicilio, calle o plaza: SAMANIEGO Entidad o Parcela: _____ Municipio: VITORIA Provincia: Álava		